

NOLA LANDU ETA AUKERATU HEZKIDETZAKO IKASMATERIALAK



HEZKUNTZA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEA
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

2

Egilea: EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea eta Eusko
Jaurilaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Autoreak: Neli Zaitegi de Miguel

M^º José Urruzola Zabalza

Ilustratzailea: Iñigo Ordozgoiti

Inprimatzailea: Gráficas Santamaría, S.A.

L.G.: VI-515/93

AURKEZPENA


Eskola eremuaren barruan, testuak eta, orohar, ikasmateriala, sexu-rol ezberdinei eta emakumearen diskriminazioari buruz gizartean egun dauden estereotipoak zabaltzeko bide garrantzitsuak dira.

Zentzu horretan, helburutzat testuliburuetakoko sexismo maila aztertzea eta hezkuntza mundua kontzientziatzea zuen «Testu liburuen bidez zabaltzen al ditugu sexu-baloreak?» liburuskaren bidez Emakundek eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hasitako ibilbideari jarraituz, argitalpen berri honekin aurrerapausoa eman nahi da pertsonen heziketa osoa ziurtatuko duen benetako hezkidetzaren lortzeko, 1991-1994rako Euskal Autonomi Elkarteko Emakumeentzako Ekintza Positiborako Planean proposatzen den modura.


Material honen bidez egun dagoen ikasmaterialetik eta LOGSE ezartzearen ondorioz sortuko denetik hezkidetzaren ikuspuntua ongien biltzen duen materiala hautatu ahal izateko analisirako tresna eman nahi zaio irakaslegoari.

Argialetxeen eskueran orientabide batzuk jarri dira, halaber, ikasmateriala Hezkuntza Erreformako curriculum-planteamendu berrietara eta curriculum-material horien baimenak eta ikuskapenak arautzeko asmoa duen legezko araubide berrira egoki daitezen errazteko.

Edozein eratarik, hau ez da proposamen itxia, aitzitik, hezkuntza-munduan diharduten pertsona guztientzako lan-eremu zabala baizik, eta hezkidetzaren bidez heziketa aberastea eta hobetzea du helburu.



Fernando Buesa Blanco
Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Saila



Txaro Arteaga Ansa
EMAKUNDE/Emakumearen
Euskal Erakundeko Zuzendaria

SARRERA

Hezkuntzaren Erreformatan desberdintasunarekiko begiruneari eutsi beharra aipatzen da eta zenbait orientabide azaltzen dira desberdintasun hori hierarkizazio edo beste edozein diskriminazio-era bihurtu ez dadin. Nolanahi ere, eta egoera horretara iritsi bitartean, sexu, arraza, gizarte-kondizioa nahiz bestelako arrazoiengatik, hainbat pertsonaren diskriminazioa sortarazten duten hierarkiazko estereotipoek diraute oraindik egungo hezkuntza-sisteman.

Hezkuntzaren Erreformari dagokion testuinguru orokor honetan, nesken izakera alderdi batzutatik eta mutilena beste batzutatik mugatzen dituzten eta, oro har, ikasleen garapena eragozten duten estereotipo sexistak deuseztatzeko ekintza pedagogikoak planteatzen dira.

Estereotipo hauek erabat erroturik daude hezkuntza-sisteman, normalizat hartzen dira. Irakasleek ere oharkabea transmititzen dituzte euren jarreretan, erabiltzen duten mintzairan, ikasleen igurikapenetan, eta abarretan.

Baina, irakasleez gainera, badira pertsonaren sexuan oinarritutako hierarkizazioa transmititzen duten beste hainbat agente ere: zientzia, tokiaren erabilera, jolasa, ikasmateriala, etab.

Estereotipoak gainditzerakoan, testuliburuak eta ikasmateriala garrantzizko tresnak dira, gizartearen ikuspegi zuzenagoa eta berdintasunean oinarrituagoa erakutsi baitiezaiekete ikasleei. Ikaslearen eguneroko jardunean

tarteko direla, irudien, adibideen, testuen eta abarren bitartez erreferentzia berriak, bizimodu desberdinak nahiz beste balore-sistema bat erakutsi ditzakete, eta horrela, jeneroaren arabera estereotipo murriztaileak (1) gainditu ditzan gizakiarekiko pentsamolde berria oinarritzen lagundu.

Argitaletxeek erantzunkizun berezia dute hezkidetzako ikasmaterial hauen prestakuntzari dagokionez.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, berriz, testuliburu egokiak onesteaz gainera, sexuen eskubide-berdintasunean urratzen duten liburuak errefusatzeko dagokio, eta beharrezkoa balitz, ikastetxeetan beraiei erabilpenerako baimena kentzea.

Eragin handia duten agenteen artean irakaslegoa dugu, irakasleak aukeratzen baititu ikasleek erabili beharreko liburu eta ikasmaterialak eta, beraz, berari dagokio estereotipo sexistak gainditzeko ardura, egunero erabiltzen dituen liburu eta ikasmaterialen analisi eta kritikaren bidez.

Indarreko lege-araudia abiapuntutzat harturik berrikuspenerako irizpide eta orientabide batzuk eskaini nahi dituzte Emakundek eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, LOGSEren arabera argitaratuko diren ikasmaterial lege horretara egokitu daitezen eta hezkidetzaren ikuspegitik landuak izan daitezen.

Hezkidetzak, tradiziozkoak eta dagoeneko zaharkituak diren estereotipoen arabera eredu maskulinoa eta

(1) Gizarte sexistak emakumeei eta gizonei eratzekitako eginkizun, rol, balore... desberdinak. Sexua da berezkoa, jeneroa, berriz, kulturazkoa.

femeninoa alde batera utzirik, neskentzat nahiz mutilentzat baliagarria den pertsona-eredua bultzatzean datza.

LEGE ETA ERAKUNDE-ESPARRUA

Gaur egun, bai erakunde-mailan eta bai lege-mailan, ikasmaterialak hezkidetzat-irizpideei egokitu behar zaizkie.

Funtsezko esparrua hurrengook osotzen dute:

HEZKUNTZA SISTEMAREN ANTOLAMENDU OROKORRARI BURUZKO LEGE, LOGSE, 1990.EKO URRIAREN 3KOA. Lege honetan hainbat helburu azaltzen dira hezkuntzan sexu-arrazoiengatiko diskriminaziorik ez izateari dagokionez, eta horretarako, desberdintasunak konpentsatu eta eskubideberdintasuna bete beharra dagoela adierazten da. (Legearen hitzaurrea).

EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO EMAKUMEENTZAKO EKINTZA POSITIBOEN PLANGINTZA, 1991-1994. Hezkuntzari dagokion atalean, 4. helburuan, ikasliburu eta ikasmaterialen edukin diskriminatzaileak aztertu eta aldatu beharra planteatzen da, horretarako zenbait ekintza proposatuz.

143/1993 DEKRETUA, MAIATZAREN 18KOA, EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO IKASTETXEETAN ERABILTZEKO TESTULIBURU ETA GAINERAKO IKASMATERIALEN ONESPENA ETA GAINBEGIRATUA ARAUTZEN DUENA.

Dekretu honek, onetsiko badira, testuliburu nahiz ikasmaterialek sexuen eskubide-berdintasunaren printzipioetara egokituak izan beharko dutela ezartzen du, bestela, haiek erabiltzeko baimena kendu ahal izango dela adieraziz.

«Sexuen eskubide-berdintasunaren printzipioak urratzen dituen ikasmaterialari berehala kendu ahal izango dio baimena, ofizioz edo alderdi baten eskari eta interesatuari entzun ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak».

HEZKIDETZAKO IKASMATERIALGINTZARAKO ORIENTABIDEAK

Hezkidetza norbere nortasunaren eta berezitasunen arabera hezkuntza bezala definitu daiteke, jeneroz kanpokoa, hau da, irizpide sexistetatik emakumeei eta gizonei eratxekitzen zaizkien rol, balore, jokaera eta abarrez kanpokoa.

Estereotipoei jarraituz «jenero»-aren arabera hezkuntzari eusteak, ikasleen erabateko garapena eragozte

dakar, zeren, horrela, neskak jenero femeninoari dagokion estereotipoak eta mutilak jenero maskulinoari dagokionak eskatzen dituzten gaitasunak, baloreak eta jokaerak garatzera bultzatuko baititugu. Eta horrenbestez, bai neskak eta bai mutilak, gizakiaren erabateko garapena lortzeko beharrezkoak diren zenbait balore eta jokaera garatu eta praktikan jarri gabe geratuko lirateke.

Hezkidetzaren ikuspegitik, gizakien ahalmen guztiak garatu nahi dira, desberdintasun biologikoak aintzat harturik, baina, hierarkizaziorako atxaki bihurtzeko arriskuari ekidinez.

Hezkidetzaren bidean, erabiltzen den ikasmateriala oso garrantzitsua gertatu daiteke inolako hierarkizazio edo diskriminaziorik azaltzen ez duten bizimodu eta jokaera desberdinen erakusle gisa.

Horrexegatik, hain zuzen ere, hezkidetzaren ikuspegitik ikasmaterialak prestatu eta lantzerakoan hurrengo orientabideok kontutan hartzeko gomendioa egiten dugu.

IRUDIETAN

- Agertzen diren pertsonaia femenino eta maskulinoen proportzioa errealitatera egokitu.
- Pertsonaia hauek toki desberdinetan kokatu, jeneroen arabera kokapen estereotipatuak ekidinez, pertsonaia femeninoak beti toki itxietan, txikietan, etxe barruan...

eta maskulinoak kanpoan, toki zabaletan, publikoetan agertarazi gabe, baizik eta, denak toki guztietan, %50ean.

- Pertsonaia hauei eratzekitako tasun edo kualitatez arduratu, estereotipatu gabekoak izan daitezten: neskatoa fin eta arduratsua, mutikoa alai eta bizia...; aitzitik, bai neskak eta bai mutilak, bereizketarik gabe, bizitasuna, sentikortasuna, bakezaletasuna, ausardia... bezalako tasunez agertu daitezela.
- Emakumeen eta gizonen lanbideak ez direla klitxe sexisten arabera erakutsi: maistra, idazkari, erizaina... batetik, eta irakasle, zuzendari, mediku... bestetik, baizik eta, emakumeak nahiz gizonak lanbide berberetan dihardutela erakutsi.
- Neskentzat nahiz mutilentzat interesgarriak diren ihar-duerak moldatu. Bai neskei eta bai mutilei atsegin zaizkien jolas, hobby edo astia emateko eta gozatzeko era berriak, esate baterako.
- Pertsonaien protagonismoaz arduratu, hierarkizazio sexistarik agertu ez dezaten; esate baterako, emakumea eta gizona bai zuzendari gisa eta bai menpeko gisa agertu daitezela. Jolasari hasiera ematen dion pertsonaia pertsonaia femeninoa nahiz maskulinoa izan dadila edo irakurgai baten protagonista neska nahiz mutila izan dadila.
- Jeneroaren arabera balore-hierarkizaziorik gabeko marrazkiak azaldu; esate baterako, hartzatxoa ez dadila beti ausarta izan eta hartzemetxoa beldurtia.

- Emakumearen eta gizonaren gorputzak ezin diskriminazio negatiborik gabe aurkeztu jarrerari, keinuari, iharduerei eta abarrei dagokienez.
- Edertasuna dela eta, ezarritako estereotipoak gainditu eta pertsona bakoitza berez ederra dela erakutsi.
- Helburua den-dena konpartitzea dela erakutsi; pribatua eta publikoa, lana eta jolasa, etab. Ez erabili rolen aldaketa mekanikoa azaltzen duten irudiak; hau da, neska mekanikari gisa, futboleko jolasten edo enpresa baten zuzendari gisa, eta mutila etxeko langile gisa, sokaz jolasten, etxean sarturik, etab., aitzitik, hala mekanikari gisa, nola jolasten, etxean edo enpresa baten zuzendaritzan bai neskak eta bai mutilak agertu daitezela.
- Irudietan, femeninoa denaren gutxiespen sozialari aurka egin. Adibidez, gizon bat emakumeei eratzeki ohi zaizkien lanetan, lanbideetan edo kualitateez agertarazten duen irudiaren onespina ilustratu.
- Bizimodu berriak eskaini: lan egiteko, gozatzeko, bidaiak egiteko, ikasteko... era berriak.

TESTUAN

- Gizarteriaren garapenean emakumeei dagozkien ekarpenak azaldu, bai gizakiaren ugalketan eta bai zizentzia nahiz kultura arloan eginikoak aintzat hartuz. Adibidez, emakumeek egiten duten lanaren garrantzia eta errentagarritasun ekonomikoari buruzko datuak eman edo emakumeek eginiko ikerlanak aipatu.

- Nabarmendu diren emakumeak aipatu, herri baten historia azaltzen denean edo Zientziaren aurrerapenak esplikatzen direnean.
- Gizartean femeninotzat hartzen denaren balorazio egokia dakarten esaldiak nabarmendu. Esate baterako: «...besterenganako arreta eta begiruneari esker, adostasunera iritsi ahal izan zen...» «ekinaren ekinaz lortu egin zuen...» «haren sentiberatasunak bulegoko atal hartako harremanetan gertatzen ziren gatazka asko arintzen zituen...».
- Emakumeek munduan garatutako kulturak etorkizuneko gizateriaren garapenerako erreferentzia baliogarriak eskaintzen dituela azpimarratu. Esate baterako: sentiberatasunaren, ohartasunaren, zalutasunaren, estetikaren, adimen praktikoaren, eta abarren garapen-maila handiagoa emakumeentzat nahiz gizonentzat mesedegarria suertatu daitekeela azaldu.
- Adjetibazioa kontutan hartu, emakumeei eta gizonei lotu ohi zaizkien igurikapen estereotipatuak gaindituz, hau da, gizon garaia, kementsua, bizia, gogorra eta emakume otzan, leun, ikaratia...
- Gizakiaren erabateko garapena lortuko bada, haren ahalmen eta gaitasun guztiak beharrezkoak direla azpimarratu, hurrengoak bezalako adierazpenak nabarmenduz: «hura (gizonezkoa) oso sentibera zen eta hala agertzeak ez zuen arduratzen...» «maitasunezko agertzen zen, gizonari dagokion bezala...», eta bestelako hauek ekidinez:

«sentiberatasuna emakumeen kontua da», «ezin zuen berez ez dagozkion sentiberatasunez eta bigunkeriez jardun», etab.

- Zientzilari, historilari, idazle, etab., diren emakumeen aipamenak egin, azaltzen ari den ikasgaia osotzeko.
- Emakumeek eginiko testuen irakurketari ekin.
- Bibliografian, emakumeek idatzitako liburuak aipatu.
- Testu bat azaltzean jartzen diren adibideez arduratu, eskentzat zein mutilentzat interesgarriak gertatu daitezten.
- Hitz egitean, batzutan bi jeneroez baliatu eta beste batzutan epizenoaz, horrela, aspergarria izan gabe, gogoan benetako errealitatea, hau da, femeninoa eta maskulinoa, dugula erakutsiz. Adibidez: «emakumeek eta gizonek lan egiten zuten eta bai emakumeak, euren esperientziaz, eta bai gizonak, beren jardunaz, misedegarriak suertatzen zaizkion nekazaritzari...», «taldean jolasten zuten eta neskatoek, lehenengo eta mutikoek ondoren, zera zioten...»
- Horrez gainera, arlo bakoitza lantzerakoan, hala Letretan, nola Zientzietan, adierazitako irizpideen ildotik alderdi bereziei eman beharreko tratamenduaz arduratu beharra dago.
- Azkenik, maskulinoa femeninoaren gainetik ezartzen duen hierarkizazioan oinarritutako gizartean bizi garela eta gizakiok hierarkizazio hori gure egin eta oharkabean ugaldutako ere egiten dugula kontutan izanik, edozein

ikasmaterial egiterakoan, beharrezkoa da argialetxeak hezkidetzan adituak direnen aholkuaz baliatu daitezela, beste gai batzutan egiten duten moduan.

IKASMATERIALA HEZKIDETZAREN IKUSPEGITIK BERRIKUSTEKO IRIZPIDEAK

Hainbat ikerlanetan (2) agertu den bezala, egungo ikasmaterialaren edukina eta irudiak desegokiak dira hezkidetzaren ikuspegitik begiratzuz gero, izan ere, hezieraren une garrantzitsuan dauden neska eta mutilen eskuetan jartzen diren irudiak eta zuzentzen zaien mintzaira irizpide sexistetan oinarrituak baitira, diskriminatzailea eta, beraz, bidegabekoa dena normal eta berezkoa bailitzan erakusten zaiela.

Horregatik, eta ikasmaterial egokiagoak izan artean, testuliburuak, kontsulta-liburuak eta irakurtzekoak aukeratu aurretik, hezkidetzaren aldetik duten balioa

(2) «Rol maskulinoa eta femeninoa euskarazko testuliburu era irakurketetan» Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea. 1990.

«Modelos masculino y femenino en los libros de texto de EGB», N. Garreta y P. Careaga. Instituto de la Mujer. Ministerio de Cultura. 1987.

«Testuliburu bidez zabaltzen al ditugu sexu-baloreak?» Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

aztertu dezaten gomendatzen zaie irakasleei. Jarraian, eginkizun hau erraztu dezakeen fitxa dago. Berorretan agertzen diren irizpideak, gainera, argitaletxei ere baliogarriak gertatu dakizkieke euren ikasmaterialak berrikusteko orduan.

Interesgarria litzateke ikastetxean erabiltzen diren liburu guztiak aztertzea, jakina; baina hasteko, eginkizun hori arindu dezaketen eta ziklo nahiz etapa bateko irakasleak esku hartzera daramatzaten formuletara jo daiteke, aztertu beharreko testuak irakasleonek artean bananduz. Honela, gainera, aurrera egin ahala, PEC delakoa (Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua) eta PCC delakoa (Ikastetxeko Curriculum Proiektua) hezkidetzaren ildotik moldatzeko irizpideak bateratzeari ekingo litzaioke.

Azterketa egin aurretik, aipatutako fitxa zenbat orri edo ikasmaterial-aleri aplikatuko zaion erabaki beharra dago. Guztien %10ari gutxienez aplikatzea gomendatzen da eta ahalik eta ausazkoena izan dadila, hau da, 5 orrietarik bat, 10etarik bat; 3garrenetik, 5garrenetik hasita, beti orri berberak izan ez daitezten.

Erantsirik doan berrikuspen eta azterketarako fitxan dauden aldagai guztietan sexu bien agertze-indizea %50aren ingurukoa bada, liburua hezkidetzari lotzen zaiola esan daiteke. Bi sexuetakoko edozein portzentaia honetara heltzen ez bada edo gainditzen badu, diskriminazioaren bat dagoela esan nahi du.

Aldagai guztiekiko azterketa eta balorazioa banan-banan egingo dira, aldagai batzuek azterketa kuantitatiboa eskatzen dutela eta besteek kualitatiboa aintzat harturik. Azterketa horretatik aterako dira hezkidetzari gehiago

ala gutxiago lotzen zaizkion alderdiei buruzko ondorioak. Azken balorazioa aurreko guztiak elkarri egokituz egiten da.

Liburu bakoitzeko fitxa bat (3) erabiltzea gomendatzen da, ateratako ondorioak eta azken iritzia adieraziz. Beste irakasle batzuek moldatutakoekin batera, hezkidetzari gehien lotzen zaizkion liburuak aukeratzeko irizpideak erakutsiko dizkigu.

Ikastetxeari mesedegarria gertatuko litzaioke egiten diren fitxak biltzea eta testuak hezkidetzaren ikuspegitik berrikusteko artxibo baten oinarri bihurtzea, liburutegian eskola-komunitate osoaren esku egon litekeen artxiboa alegia. Ikasleek ere euren liburuak, testuliburuak nahiz irakurketak, berrikusi eta aztertzeke erabili ahal izango lukete fitxa hau.

Azterketa-ahalegin hau are onuragarriagoa suertatu daiteke fitxaren kopia COP delakora bidaliz gero, horrela, beharrezkoa izan dadinean erabili ahal izango den artxibo zabalagoa hornituz joango litzateke eta.

(3) Fitxaren formatua atal bakoitza folio-tamainuraino zabaltzeko moduan eratu da, erabilera errazteko asmoz.

IKASMATERIALAK HEZKIDETZAREN IKUSPEGITIK BERRIKUSI ETA AZTERTZEKO FITXA

IZENBURUA: _____

EGILEAK: _____ ARGIALETXEA: _____

MAILA/K: _____ KAP.: _____ ORR.: _____ IKASK. UNITAT.: _____

	PERTSONAIA FEMENINOA	PERTSONAIA MASKULINOA
1. PRESENTZIA • Pertsonaia-kopurua • Sexu biak barne hartzen dituen epizeno edo femennino batez ordezkatu daitezkeen maskulinoz idatzitako izen-kopurua.		
2. PROTAGONISMOA • Bere izenaz agertzen direnak. • Protagonista nagusia • Elkarriketa edo ekintzari hasiera ematen diona • Elkarriketetan zenbat aldiz parte hartzen duen.		
3. ESPAZIOA Toki publikoa • Soldatapeko lantokietan • Ekintza eta toki publikoetan Toki pribatua • Etxean, dendan, auzoan... • Toki itxian/familiarekin		
4. LANBIDEAK • Ordaindutako lanetan. Lanbide-kp • Duten lanbideagatik aipatutako/aurkeztutako pertsonak • Lan intelektuala egiten ari dela • Erantzunkizun profesional handiko lanpostuetan • Beste sexuko menpekoak dituzten kargudun gisa aurkeztuak • Bere jeneroari eratxeki ohi zaizkionak ez bezalako lanbideetan (emakumea ingeniaria/gizona erizaina)		
5. AISIA • Kirol ariketan • Mugimendua, ekintza nahiz harreman soziala eskatzen duten jolas-ekintzetan • Pertsonaia helduak astialdiko ekintzetan		

PERTSONAIA
FEMENINOA

PERTSONAIA
MASKULINOA

6. ETXEKO LANAK

- Etxearen eta etxekoan mantenurako funtsezkoak diren (ez laguntza hutsa) lanak egiten
- Zaharrak, gaixoak... zaintzen
- Sanitartekoei laguntzen

7. FAMILIA STATUSA

- Familian aginpidea, ospe handia edo garrantzia duena.

8. GIZARTERIAREN AURRERABIDERAKO
EKARPENAK

- Gizakiaren ugalketan
- Zientzian, ekonomian, kulturen, gizarte-mailan...

9. GORPUTZAREKIKO TRATAMENDUA

- Gorputzaren presentzia
- Eratxekitzen zaizkion funtzioak
- Nabarmentzen diren aldeak, jarrera eta irudia

10. BALOREAK

- Garatzen dituzten baloreak zerrenda batean jarri

11. IGURIKAPENAK

- Eratxekitzen zaizkien adjetiboak zerrenda batean jarri
- Aditzak ere bai

OHARRAK: _____

ONDORIOAK:

Hezikidetzari gehien lotzen zaizkien alderdiak: _____

Hezikidetzari gutxien lotzen zaizkien alderdiak: _____

Balorazio orokorra:

- 1.- Oso negatiboa. Negatiboa. (Ez erabiltzekoa).
- 2.- Desegokia. (Ez da gomendagarria)
- 3.- Nahiko egokia (erabilgarria daukan estereotipoak zuzenduz gero).
- 4.- Hezikidetzari lotua. Erabilgarria, gomendagarria...

Azterketa bukatutakoan:

- Iritzi orokorra positiboa bada, ikasleentzat aukeratu eta irakaskuntzan diharduten beste profesional batzuri gomendatutako testuetako bat izan daiteke. Argitaletxeari ere gutun bat bidali dakioke zorionak emanez.
- Aztertzaileen iritziz, liburua hezkidetzari behar hainbat lotzen ez bazaio, ikasmaterialaren alderdi sexista agerian uzten duen jarrera kritikoa hartu beharko litzateke ziklo, etapa eta Ikastetxe-mailan. Eta liburu hori erabiltzekotan, dauzkan mezu sexistak kontutan hartu eta zuzendu egin behar dira, horrela ikasleengan eraginik izan ez dezaten.
- Ateratako ondorioak oso negatiboak badira, ez da erabili behar. Aitzitik, komenigarria izango litzateke dagokionari horren berri ematea, bai Ikastetxean eta bai zerikusia duten Erakunde nahiz Taldeetan. Gutun baten bidez, kezka bizia adierazi dakioke argitaletxeari eta, era berean, Emakundera eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera jo, indarreko araudirak, maiatzaren 18ko 143/1993 Dekretuak (1993.eko ekainaren 14ko E.H.A.A.) hain zuzen, ezartzen duenaren arabera, liburu hori merkatutik atera dezan eskatuz.

